



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián

Centro Kursaal Elkargunea
Zurriola 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 00 31 70
quincenamusal@donostia.eus
www.quincenamusal.eus

Sarrerak / Entradas
Taquillas / Leihatilak:
Kursaal
Teatro Victoria Eugenia
Antzokia
www.quincenamusal.eus

Datorren kontzertua / Próximo concierto:

30/8
20:00
**Orchestre Philharmonique
de Radio France**

Informazio gehiago:
Más información:



Musika Hamabostaldiaren edizio **BERRI** bat.

El festival de música clásica más ANTIGUO de España.

Teníamos que estar.

Respaldando con muchísima pasión
la Quincena Musical desde 1995.



ANTIGUOBERRI

Okendo Kalea, 5
20004 Donostia / San Sebastián T. +34 943 316 810

www.antiguoberri.com

85 musika quincena
hamabostaldia musical

donostia
san Sebastián
abuztua 1-30
agosto 2024



27/8

**Orchestra
Filarmonica
della Scala de
Milán**





Bidaiak eta exotismoa

Milango Filarmonica della Scala orkestrak kontraste ugariko egitaraua interpretatuko du, Ricardo Chailly maisuaren zuzendaritzapean. Abentura liluragarri baten bitartez, Errusia hotz eta ilunetik antzinako Greziako paisaia bukoliko eta iridiszenteenetara eramango gaitu. Txaikovskiren (1840-1893) *5. Sinfonia Mi minorrean* (1888) lanarekin hasiko da bidaia. Lan horretan Patuaren kontrako borroka basatia egiten da, lau mugimendutan. *Andante-allegro con animan* klarinetearen doinu ahulak pintzelkada gogoangarriak uzten ditu mihisean, eta hori izango lan osoan behin eta berriz errepikatzen den hazia. Mugimendu hori Patuaren aurreko otzantasun goibel eta sutua da; ondorengo *andante cantabile, con alcuna licenza*, berriz, sentimentaltasun garbikoa da. Tronpa bakarlari samurrak giro erromantikoa sortzen du, eta harekin bat egiten dute, elkarriketa gozoan, klarineteak eta oboeak. Intimitate hori bulkada kartsuek eteten dute, eta horiek zikintzen dute mugimenduaren baretasuna urduritasunaren eta pasioaren kolore ugariekin. Horri jarraituko dio *Valse: allegro moderato* xehe batek, eta bertan, dotoreziaz gainera, nahasmendu eta asaldura uneak sumatuko dira. *Finale: andante maestoso-allegro vivacek* erakutsiko digu

errepikatzen den gaiaren formarik doto-reena, horren gorespen apoteosikoan. Tentsioz eta dramatismoz beteriko errepikapen etengabeek Patuaren kontrako garaipen arranditsua oihukatzen dute.

Gure odisea musikalak Ravelen (1875-1937) *Daphnis et Chloé* balletarekin jarraitzen du. Sergei Diaghileven enkargua izan zen lan hura, eta hartan jardun zuen lanean 1909 eta 1912 urteen bitartean. Lanaren hedadura dela-eta, Ravelek balletaren pasarte batzuk konpondu eta gaur entzungo dugun orkestrarako bi suite bihurtu zituen. Istorioa Longo greziar egilearen eleberrian inspiratuta dago, eta Lesbos uhartera garamatza, Daphnis eta Chloé artzain gazteen arteko maitasun-harremanaren gorabeherak kontatzeko. Orkestrazio bizi baten bitartez, Ravelek *1. Suitea* lanean marrazten du bi gazteak nolako paisaietan egiten duten gorrea, Chloéren bat-bateko bahiketa eta haren erreskatea, Pan jainkoaren esku-hartzeari esker. Egunsenti nagiz batek margotzen du *2. Suitea*. Erreka baten marmarrak, txorien txorrotzioak... poliki-poliki esnatuko dira, maitaleen bat-egitearen ospakizun guztiz pozgarrian amaitzeko.

Tian Yuan Huang*



Ricardo Chailly

27/8

Asteartea / Martes
20:00

Orchestra Filarmonica della Scala de Milán

Ricardo Chailly zuzendaria

Babeslea / Patrocina



ANTIGUOBERRI

*Musika Hamabostaldiak finantzatutako *Musika Hitzetan* lankidetzaren proiektuan parte hartu duen Musikeneko ikaslea



Viajes y exotismo

La Orchestra Filarmonica della Scala de Milán, bajo la batuta del maestro Ricardo Chailly, interpretará un programa de abundantes contrastes con el que nos llevará, en una embriagadora aventura, desde la fría y oscura Rusia a los paisajes más bucólicos e iridiscentes de la antigua Grecia. Este viaje empieza con la *Sinfonía nº 5 en Mi menor* (1888) de Tchaikovsky (1840-1893), una feroz lucha contra el Destino en cuatro movimientos. En el *Andante-Allegro con anima* la lánguida melodía del clarinete traza una memorable primera pincelada en el lienzo, que será el germen de un tema recurrente a lo largo de toda la obra. Mientras que este movimiento es una sombría, pero ardiente sumisión ante el Destino, el *Andante cantabile, con alcuna licenza* que lo sigue es sentimentalidad pura. Un tierno solo de trompa crea un ambiente romántico, al que se suman, en un dulce diálogo, el clarinete y el oboe. Esta intimidad es interrumpida por fervientes impulsos que manchan la calma del movimiento con exuberantes colores de inquietud y pasión. Le seguirá un grácil *Valse: Allegro moderato*, en el que además de elegancia se podrán entrever momentos

de agitación y turbulencia. *El Finale: Andante maestoso-Allegro vivace* nos enseña la forma más majestuosa del tema recurrente en una apoteósica exaltación de éste. Las constantes reiteraciones llenas de tensión y dramatismo exclaman, sin duda, una triunfal victoria contra el Destino.

Nuestra odisea musical sigue con el ballet *Daphnis et Chloé* de Ravel (1875-1937), un encargo de Sergei Diaghilev que ocupó al compositor entre 1909 y 1912. Debido a la extensión de la obra, Ravel arregló algunos pasajes del ballet en dos suites para orquesta que se escucharán hoy. La historia, inspirada en la novela del autor griego Longo, nos transporta a la isla de Lesbos para contar las vicisitudes del romance entre los jóvenes pastores Daphnis y Chloé. A través de una ingeniosa orquestación, Ravel dibuja en la *Suite nº 1* el idílico paisaje en el que se cortejan, el repentino secuestro de Chloé y su milagroso rescate gracias a la intervención del dios Pan. Un perezoso amanecer en la naturaleza colorea la *Suite nº 2*. El murmullo de un río, el piar de los pájaros... despertarán poco a poco para desembocar en una jubilante celebración por la unión de los amantes.

Tian Yuan Huang*

*Alumna de Musikene participante en el proyecto de colaboración *Musika Hitzetan* (Música en palabras) financiado por la Quincena Musical

MAIN PARTNER

